

# TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

1999ko urtarrila - 26. zenbakia

**Itxaropenari  
ate bat  
zabaldu ei  
deutsoe!**



# JULEN tailerra

## Zerbitzu bizkorra

NEUMATIKOKAK  
GAS-TUTULUKAK  
ORIOA ALDATZEA  
BALAZTA ZAPATAK

Beherapen ederrak



ZERBITZU BIZKORRA:


- orioa aldatzea
- irazkina (filtroa) aldatzea
- gas-tutulua
- leungailuak
- neumatikoak
- burpilak orekatzea
- balazta zapatak
- direkzinoa doitzea
- mekanika arloa
- soldatze lanak
- motorea garbitzea (ur beroaz)

# JULEN tailerra

Artalde, 8

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 48 97



# MOTUL

**BERBAURREA**

«Urte barri barri, txarri belarri». Negu minean gagoz. Urteko sasoirik ilunena, egunak laburragoak izaten dira eta. Afrontutsua be izaten da negua, haizea eta hotza hazurretaragino sartuten dirala. Etxean egoteko sasoi, bada. Etxekoen artean hartuemonak sendotuteko sasoi, hatan be. Hizkuntza arloan, euskeran, etxeko eragina leba handi-handikoa da. Bera barik ez legoke gure hizkuntzea bizirik, bera barik be ez da biziko. Negu minean etxeko berotasuna beharrezkoa da horretarako. Urte barrian bakea eta askatasuna izango ahal doguz! «Daukanak ez daukanari emon deiola sarri».

TXIRRITXOLA

**TXIRRITXOLA-26**

1999ko urtarrila (hiruhilabetekaria)

**ARGITARATZAILEA**

Bakioko Euskera Batzordea

**ZUZENBIDEA**

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

**ALE KOPURUA:**

600 ale

**LAGUNTZAILEA**

Bakioko Udala

**IRARKOLEA**

Gráficas Gaubeka

Tfno.-zkia: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

**TXIRRITXOLA**

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria


**ZER-NON**

GAIA

ORRIALDEA

Aurrealdea: Itxaropenari atea .....	1
Iragarkia .....	2
Agurra .....	3
Berbetan: Herriko astodun koadrilak .....	4
Eritxia .....	6
Zer deritxozu?: Olentzerok oparirik ete? .....	7
Zer barri?:	
- Herri Barriak .....	8
- KORRIKA 11 .....	9
- AEKren ikastaroak .....	9
- Bakio Berbarik Berba liburua .....	10
- Hurrengo bertso afaria .....	10
- Itxas-Aldereren liburua .....	10
- Kultur Etxeko barriak .....	11
- XI. Idazlan Lehiaketa .....	11
- Ardaoaren ganeko ikastaroa .....	12
- Hauteskundeak-98 Bakion .....	12
- Lau musika emonaldi .....	12
- Erreka Eguna Bakion .....	13
- Nekazaritza ikastaroa .....	13
- SIFAC .....	13
Argazki erreportaia: Euskerearen Jaia 98 .....	14
Herrigintzan: Euskerearen datuen gazi-gozaok .....	16
Zuhur ibili .....	17
Gai berezia: Politikoen "Bai Euskerari" .....	18
Birigarroa .....	19
Euskal Presoen alde .....	19
Zaharrak barri .....	20
Taldeen txokoa:	
- Itxas-Aldekoei alkarrizketea .....	21
- Alaitasuna Pilota Taldea .....	21
- Abesbatza .....	21
- Musika Eskolea .....	21
Euskerea: Bakioko euskerea-4 .....	22
Kultura leihoa:	
- Xiberoko Maskaradea .....	24
- Olerkia .....	24
- Euskal ipuina: Kepa Deunaren Oilaskoa .....	25
- Bakioko liburutegiaren txokoa .....	25
Danetarikoak:	
- Datozanak .....	26
- Barregaiak .....	26
- Badaezpadako jakingarriak .....	26
- Ezetz jakin! .....	27
Atzera begira .....	28

*TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako enanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.*



**BAKIOKO UDALAK**  
diruz lagundutako aldizkaria



# Herriko astodun koadrilak

Jose Mari Ordorika (JMO), Jesus Barturen (JB) eta Aitor Llagunogaz (ALL) egon gara berbetan hiru lagunartean Astoaren Eguna dirala eta ez dirala, beroneen nondik norakoak jakin guran. Urtean egun ez bardineta, baina beti Gaztelugatxeko San Joanera, astoaren laguntzagaz, igoten dabe hiru lagunarteko. Gustura egon gara eurokaz koputxu baten aurrean. Hona hemen, ba eurek esandakoa!

**TX: Noiz hasi zinen astoaren ohitura hori egiten?**

**JMO:** 1966. urtean hasi gintzazan. Urte haretako jaiak zirala eta, matrakea euki genduan orduko alkateagaz eta protesta modura, eguna emoten, Gaztelugatxeko San Joanera joan gintzazan. Sasoi haretan bideak beste era batera egon ziran lez, astoaren ganean eroan behar izan genduzan gauzak, gurataez. Lehenengo egun haretan joan gintzazanak joaten gara oin be, apur gorabehera, Mardones, Donzeles eta Tratora falta badoguz be. Andra Mari Egunez joaten gara gu.

**JB:** Gu orain dala hogeita sei urte inguru hasi gintzazan. San Inazio Egunez. Gehienok Sanpelaiotarrak, auzokoak, gara. Orduan be, gano-razko biderik egon ez eta astoagaz joan behar, gura ta gura ez, traste guztiak eta ardao apur bat eroan ahal izateko.

**ALL:** Bost bat urte dira hasi ginana, Karmentan eta beti zapatuz.

**TX: Egun horretan zer egiten dozue?**

**JMO:** Lehenengo pasakalea, Txokotik urtenda. Ostean, gora, Gaztelugatxeko San Joanera eta bertan, batzuk lapatan joaten dira, beste

batzuk bazkaria egiten,..., itsasoa dagoana dagoala be. Egundo be ez doguz lapak falta izan. Bazkaldu, gauzak batu eta atzera herrira, Txokoan amaitu artean. Hoge bat lagun batuten gara beti.

**JB:** Guretariko batzuk, ostera, Bolibar tabernatik urteten dogu eta Azeretxon batuten doguz besteak. Ostekoa antzerakoa da. Normalean, San Joan baseleizea jagoten daben bermeotarrakaz alkartuten gara bertan zeozer hartuteko. Bazkaria be antzekoa izaten da, latakoko jana (atuna...), aurretik okelea eta bezperan hartutako lapak beti. Herriratzerakoan, poteoa eta afaria Bolibar tabernan. Txarto edo ondo, helduten gara hara, danok heldu baina.

**ALL:** Guk be antzera egiten dogu egun hori. Baina Txominenetik urten eta bertan amaitu. Hori bai, igaz lehenengo z guzti-guztiok amaitu genduan eguna. Orain artean beti lotuten izan da baten bat hor nonon botata.



**TX: Nongo astoak izaten dira?**

**Danak:** Atxurirena, Sanglasena, Kitanona,... Luzarragakoa izan zan lehenengoa, Ostienekoa, gero... danak onak. Geugaz ondo konponduten izan dira beti. Normala da, ez da?

**TX:** Egun horren gauzarik onena/txarrena?

**JMO:** Onena parrandea eta txarrena atzera herrira etorri beharra. Gero, taberna guztietan egiten dogu dantzaren bat...

**JB:** Bai, onena danak batu ahal izatea. Txarrena, baten batentzako etxera joan beharra, beharbada.

**ALL:** Onena parrandea eta txarrena hurrengo eguna. Azkenengo urteotan, mahaiganekoa egiten dogu taberna batzuetan koadrilako guztiok.

**TX:** Eta noiz arte jarraituko dozue ohitura hori egiten?

**Danok:** Ahal dan urte guztietan jarraitutea da amesa. Gorputzek lagunduten dauan arte. Euria zein euririk ez. Inoiz lotu gara San Joanerara igon barik, euria bota ahala zala eta. Osterantzean, beti goragino.

**TX:** Egun horretan euskerea ala erdere da nagusi?

**JMO eta JB:** Geurean erderaz oztan-oztan egiten dabe askok eta euskeraz hobeto konponduten gara.

**ALL:** Gurean, ostera, danatarik dago. Baten batek egin be, inglesa be egiten daki.

*Jonjo AGIRRE*




## TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozentzako salneurri barriak. Salneurriok 1999ko urtarriletik aurrera egongo dira indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkerroan, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94 619 33 69

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale 1
	(pta.)	(pta.)	(pta.)
Osoa (290x205)	19.000	14.000	10.000
Erdia (205 x 140)	10.000	8.000	6.000
Laurdena (140 x 100)	6.000	5.000	4.000
8rena (100 x 65)	4.000	3.000	2.000
16rena (65 x 50)	3.000	2.000	1.500
32rena (50 x 35)	2.000	1.500	1.000

**OHARRA:** Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarriztat jo daiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izena edo irudiari kalte egin leikionik be.




## BAKEA GORA, BAKEA BEHERA

Bakea dabil agorik ago. Inoizkorik sarrien. Bakea gora, bakea behera. Alde batekoek zein bestekoek. Bakea eskatu izan jake batzuei bakarrik. Herri honek, baina, bake egarri izan da ehundaka urtetan. Herri hau beti bakezalea izan dalako, jakina. Askatasun egarri dan Herriak bakezale baino besterik ezin dau izan. Bizirik irauteko bakea behar daualako. Ez edozein bakerik, ez edozelango bake merkerik, ez. Zuzentasanean oinarritutako bakea baino.

Arrain handiak txikia irunsi ta jan... Indarrak aginduten dau hor. Indarrak pertsonen eta Herrien eskubideetan agindu daroa, zuzentasunaren aurka. Zuzentasunaren eskubideak luzarogegian egon dira ostenduta gure Herriarentzako. Berba ederra **zuzentasuna**; arrain handiak ahaztua, baztertuta, baina. Zuzentasun barik ez dogu Herri honetan bakerik jadetsiko. Ha barik ez da ezer onik berton egongo. Bera da bakearen ibilbidea eta ibilgailua, oinarria eta zutabea.

Gure Herriak bakea gura dau, argi ta garbi, baina zuzentasuna bide dala, oinarri dala. Han-hor-hemenka dabil bakea berbea. Inoizkorik sarrien. Bakea aginduten deuskue, mamin bakoa. Bakeari buruz dabilz, ez zintzoro esan eta agintzetan. Zuhur egon!

*Iniki MARTIARTU*



**1984.12.26 - 1998.12.26,**  
**eta aurrera**

Ez dakit beteko dodan jaso neban agindua. Ustebagean harrapatu ninduan enkarguak. Tokiz eta orduz kanpo. Uriburuan antolatuta egoan musika emonaldia hastera doala, aspaldiko lagunek harrapatu ninduen bariku gau jendetsu batez, giro euskalzalean murgilduta. Gai librean. Nire aukeran. Itxura baten erreza. Musika saioa hasi da.

Kantak eta doinu zaharrak. Hainbat gai gogora etorri datoz, baina joan be askoz arinago doaz. Tximista lez. Zein hartu? Zelan lotu? Hor dago atxurra.

Musika saioa aurrera doa, amaitzen, ordu pare bat edo. Amaieran, orain dala 30 urte egindako itaun bera. **Zenbat gara?** Ez dakit ziur baina ametsa egi bihurtzeko nahikoak.

Gogoan dot karreran irakasleak emondako betebeharra, beraren eskoletarako idazle baten obra aztertu behar genduan. Gabonetako oporretan, abenduaren 26an erosi neban liburu hori, 1984ko abenduaren 26an, hain zuzen. Bitoriano Gandiagaren «*Uda batez Madrilen*», 1977. urtean uri horretan bizitako gomutapenen inguruan:

«*Baina guk geure ontzia nahi dugu itsasoz aritzeko gauzatu, aurkimenerako egokitu, eta horregatik iritsi gara geure ontziaren neurri eskaxez konturatzereta eta ontzi hontan nahi duten guztiei kontatzereta geure atzerapenaren historia. Guk geure ontzitik nahi dugu itsasoa bataiatu, uharteei geure izenak jarri, eta hiria eta hiriko den guztia barrutik gora hartu, lurkego ezoak basadiak bezala.*

*Hiri aurreratuan iratzarri garen Herri gara, unibertsitateko auletan iratzarri gara, olaberrietako makinarte harrigarritan, eta errealtate zoragarri hau euskaratu egin behar dugula ikusi dugu, hil ala biziko istilu hontan iratzarri garenerako.»*

Hori da idazleak Arantzazutik Madriler a oporraldiko joan-etorrian egin eban hausnarketariko bat. Liburuaren urtebetetze egunean, hamalau urte beranduago, 1998ko abenduaren 26an, Bai Euskarari ekitaldi egunean zabalduko mezuaren atal bat gogora jatort:


«*Normalizazio prozesua geldieztina dala pentsa badaiteke be, gaur-gaurkoz, etorkizuna ez dago aseguratuta. Geure konpromisoaren menpean dago euskerea, egingo dogunaren menpean.»*

Badogu zer eginik.

**G. URGOITIA**

**OHARRA:** Arteragoko TXIRRITXOLAN AMERIKETATIK izeneko euskal trainerua 11 arraunlariduna dala esan genduan. Bada, oker gengoan. Izan be, 13 arraunlariduna ei da euskal trainerua. Donostiatik esan deuskuenetik, behintzat.

## ZERRAITS UGARI ETA ERRATZAZ JO TA KE



Paper errezikletako ikastaroa bailitzan, antzinako moduetara jo behar izaten dugu Alaitasunako kideek. Frontoian pilotan jokatu gura izanez gero, fregonak pasatu, zerrautsa zabaldu, behea eskobatu, behearen gainean periodiko orriak jarri... ta zain egon, berriro euririk egin ez dezan, gure estalitako frontoi honetan. Ze momentu honetan leporaino gagoz urteroko torneoakaz...


- Umetxoen «Eskola Kirola» - eskupilota- (Diputazioak antolatuta).
- Umeen «Eskola Kirola» -paleta- (Diputazioak antolatuta).
- Nagusien «Corte Inglés Saria» (Federazioak).
- Nagusien «Bakioko Udala» -pala laburra- (Alaitasunak).
- Nagusien «Alaitasuna Pilota Taldea Saria» -eskupilota- (Alaitasunak).

... ta esan bezala, fregonak hartuta edo eguraldiaren arabera ibili behar izatea edo txarragoa dena oraindino, pilotariei telefonoz deitzen ibili behar izatea, etor ez daitezen, siketan denean jokatuko dugula eta... Zeozer-pentsatu beharko dugu, ez da? Edo ez dauka irtenbiderik? Gu, behinik behin, lan egiteko prest gagoz, bien bitartean motibapena itzaltzen ez bazaigu.

**ALAITASUNA Pilota Taldea**

**«Bedarra ez dana, berez igarten da.»**

# USTE DOZU OLENTZEROREN OPARIREN BAT MEREZI DOZULA?



**Iraide ORMAZA**

Bai. Ondo portatu nazalako urtean zehar. Eta nota onak atara dodaz.



**Xabier GARAI**

Bai. Ondo portatu nazalako. Nota onak atara dodaz. Bi itzi dodazalako (euskera ta teknologia), eta amari lagundu egin deutsodalako.



**Josu GARAI**

Ba, ez dakit, ezta? Ze gabon egun honeetan danok dagoz alai eta pozik, eta orduan, ez gara gogoratzen zer egin dogun ala zer ez dogun egin urtean zehar. Baina zeozer eukiko dogu. Ah! Eta oso ona izan naz.



**Josuné NEBREDÁ**

Bai. Karrera amaitu dodalako, eta pilo bat gauzagaitik be. Danok merezi dogu opariren bat.



**Bittor URIARTE**

Bai. Ondo portatu nazalako. (Semeari itaundu deutso ea ona izan dan, eta horrek baietz erantzun dau) Ikusten dozu? Ez naz ni bakarra hori esaten.



**Begoña MAKAZAGA**

Bai. Ama ona nazalako. Oso langilea eta orduan, pentsatzen dot, Olen-tzerok oparitu egin behar deustala zeozer.

Anartz - Ziortza - Haitz - Larraitz

*Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun,  
TXIRRITXOLAK lekutxu hau eskainiko deutsu.*

# HeRRi bArrlaK

## ERREKA NAGUSIA BIDERATZEKO AZKENENGO JARDUKETAK

Udalak hilabete biko epean aurreikusita dauka Erreka Nagusia bideratzeko obrei ekitea. Obra honeei esker, erreka ibarra zabaldu eta urak ganez egitea saihestuko da. Eusko Jaurlaritzak eta Bakioko Udalak daborduko behin betiko onetsitako proiektu honek guztira 517 milioiko inbertsinoa ekarriko dau. Halan da ze, Udalaren eta Aldundiaren artean obraren %25a finantzatuko da eta ganerako kopurua Eusko Jaurlaritzaren konturakoa izango da.

## PLASTIKO ZEIN METALEZKO ONTZIAK IZTEKO SASTARRONTZI BEILEGIAK BAKION

Daborduko Bakion plastikozko, metalezko zein tetrabrik itxurako ontziak izteko sastarrontzi beilegiak daukaguz. Foru Aldundiak emondako sastarrontzi honeek honako tokiotan kokatu dira: Zubiaur zubian, BBK-ko bulegoaren aurrean, Longarai ostatetxeaz beste aldean, Mimen-Arten, Kiroleta klubaren alboan eta Bakiense ondoan.



## GAZTELUGATXEKO BIOTIPO IZENDATU DABE

Gaztelugatxe eta beraren inguruneke flora (armeria eskadiensis, basolibondoa, itsas bedarrak...) eta itsasoko eta lurreko fauna (lanpernak, itsas potorroak, itsas txoriak, itsas usoak...) babestu eta jagoteko asmoz. Matxitxako lurmuturretik Bakioko Atxulora bitarteko eremua babesturiko biotopo izendatua izan da. Beraz, gogorazo beharra dago ondoko ekintza guztiak galarazota egongo dirana: produktu kutsagarriak eta eskonbroak botatzea, kanpatzea, motor bidezko kirol saioak edo jarduerak, itsaskiak urte bitan zehar hartzea (epe hau luzatu leiteke), itsas baliabideak uretatik ataratztea, itsas untziak ainguratzea (3 miliako abiadura gaintzen ez dabenen kasuan izan ezik), jarduera zinegetikoa, botelakaz edo ezer barik urpean uger egitea, bai eta su egitea be.

## 14 PERTSONA «OSTALARITZAKO LAGUNTZAILE ZEREGINETARAKO LAN PRESTAKUNTZA IKASTAROAN»

Igazko urriaren bigarren hamabostaldian hasikera emon jakon Ostalaritzako Laguntzaile Zereginetarako Lan Prestakuntza Ikastaroari. Horrelan, 125 eguneko eta 750 orduko ikastaro honetan —190 teorikoak eta 560 praktikoak— 14 petsona parte hartzen dabilz, bertan eskuratutako ezagupenei esker besteren kontura behar egin edo euren enpresa sortu daien. Ikaste prozesu honetan, sute, jantoki eta taberna-kafetxeetako ohiko gaiez ganera, bezeroei harrera egin, gelak txukundu zein hotel familiar edo horren pareko jarduerak kudeatzeko moduaren inguruko gaiak jorratuko dira.



## ITSAS IBILTOKIA AZKEN BEHARREN BEGIRA

Itxas ibiltokia amaitzeko proiektuan ezarri ziran obrarik gehientsuenak egin ostean, une honetan eraikitze beharrak geldirik dagoz, harik eta Gobernu Zentralak onartu arte Udalak eta Itsasertzeko Mugarte Sailak beharrezkotzat jotzen dabezan lan osogarriak, berbarako, erreketako ibarretako erremateak, zerbitzu gunea eta ibiltariak babesteko petrila. Behar osogarri horreek amaitu ahal izango dira, Gobernu Zentralak hurrengo jarduketa burokratikoaren barruan aldarazotako proiektua onesten dauanean.

## GITXI BARRU INFORMAZINO BULEGOA ZABALDUKO DA GASAREN INSTALAZINOAREN BARRI EMOTEKO

«INTERGAS EUROPA» enpresak, Bakioko gas sarea instalatzeko obren enpresa adjudikaziodunak, laster zabalduko dau informazino bulegoa. Beraz, berokuntza sistema hau instalatzeko asmoa daukenek hemendik gitxira euki ahal izango dabe horren barri.





# KORRIKA 11



## 1998-1999ko ikastaroak Bakioko AEKn

- 3. urratsa.** Egunero, goizeko 9retan.
  - 1. urratsa.** Astelehen, eguazten eta eguenetan, ilundiko 8retan.
  - EGA.** Eguazten eta eguenetan, arratsaldeko 7retan.
- Urtarriletik aurrera bizkaierazko alfabetatzea hasi leiteke. Informazio gehiago 94 674 43 16 telefono zenbakira deitu ezkeron.

Bakioko AEK

## Laster KORRIKA Bakion!

Datorren martiaren 27an helduko da KORRIKA, euskeraren aldeko lasterketa, Bakiora.


Armintzatik sartu eta Bermeora joko dau geure herria zeharkatuz. Ordurako ekitaldiren bat edo beste ospatuko dogu. Egun beratan be, jaialdia antolatuko dogu esku hartuko dogun guztiontzako. Tira! Hasi lehenbailehen sasoian egoten, euskera arin-aranga dator eta!

Ahaztu barik! Materiala, Kamisetak,... Eroslen salgai daukazuez.

**BAKIOKO AEK**




**Taberna, denda, tailer zein beste  
edozeinentzako iragarki lekua izango da hau.**



## BAKIO BERBARIK BERBA

Iñaki Gaminderen beharra laster kaleratuko da. Alde batetik, Bakioko euskerearen ganeko liburua eta bestetik, geroago, haren CD-ROMa. Halan da ze, behar hori irakurteko ez eze, entzuteko be izango dana konturatuko gara. Laster izango dogu, bada, Bakioko hizkuntza altxorren zatitxu bat gure artean. Aor bada, betiraunerako dokumentu ezin baliotsuagoak! Aor bada, herri honen benetako sen eta nortasuna!



## ITXAS-ALDEren liburua salgai

Igaz ITXAS-ALDE dantza taldeak egindako liburua 3.500 pezetan dozue salgai. Liburu honetan taldearen joandako 25 urteko historia grafikoa, argazki ugariz horniduta, azalduten da. Askoren pozerako. Gure etxeetako apaletan ondo be ondo mereziduta dauka lekutua. **Halan beite!**

**Urte barri barri  
txarri belarri  
daukanak ez daukanari  
nik ez daukat eta niri  
lau intxaur eta lau gaztaina  
Mari Montaña  
atzo eta bihar zizaina.**

(*Urté bárri bárri  
txárri belárri  
dekénak estékenari  
nik estekét ta niri  
láu intxúr ta láu gastáñe  
Marí Montáñe  
atzó ta bidxér sisáñe.*)


## HURRENGO BERTSO AFARIA

Jakin daizuen, hemengo honetan iragarten deusuegu, datorren zezeilaren 19an Bakioko Euskera Batzordeko **Bertso Afaria** antolatu gura dogula Gorrondona txakolindegian. Gure asmoa Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso ekartea da. Beraz, etorten animatu, giro alai nahiko barre egingo dogu eta. Izena, betiko moduan, iragarriko dan epean Kultur Etxean emon beharko da.




**«Inurria be, alde hoba aurka baino.»**

# KULTUR ETXEKO BARRI BATZUK



Abenduaren 1etik 19ra, Kultur Etxeko erakusketa gelan, «**Alakiketan**» izeneko erakusketa euki genduan. Bertan euskal dantzei buruzko azalpenak, jantziak, ohiturak, tresnak eta antzekoak ikusteko aukera ederra euki genduan.



Abenduaren 18an, arratsaldeko 8:00retan, **antzerki saioa** antolatu genduan eskolako oktogonoan. Maskarada taldearen eskutik «Kontrabajoa» antzezlanak ikusi genduan bertan batu ginen hainbat lagunek.



Urtarrilaren 2an, zapatuz, probalekuan **umeentzako jolas parkea** egon da, 11:30etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:00etara. Bertan, zezen mekanikoa, puzgailu handiak eta ludoteka txikia egon dira.

Eta urtarrilan be, betiko ikastaroetatik aparte, **saskigintzakoa** daukagu. Ikastaro barri hau astelehenero 16:30etatik 18:30etara izaten da.

## XI. IDAZLAN

### LEHIAKETA (1998)

Hona hemen igazko Bakioko XI. Idazlan Lehiaketa esku hartu eben idazle guztien izenak adin-taldeko. Danoi eskerrak emon gura deusueguz TXIRRITXOLAREN leihon honetatik. Gomutatu, beste aldetik, aurtan be Idazlan Lehiaketa egongo dana. Gertu zuen idazlurak!

#### Lehenengo taldea:

1. Samadhi Letelier
2. Eider Gomez
3. Jasone Alzaga
4. Mikel Basterra
5. Tomas Madariaga
6. Ainize Martinez
7. Beñat Elgezabal (**irabazlea:** «Poloster Robotak»)

#### Bigarren taldea:

1. Oihane Longarai
2. Xabier Garai
3. Lainoa Bilbao
4. Oier Bilbao
5. Indi Letelier
6. Yera Angulo
7. Zuriñe Uriagereka
8. Eztizen Angulo
9. Idoia Uriarte
10. Aitor Alzaga
11. Xabier Uriarte
12. Iraide Ormaza
13. Iñaki Aretxabaleta
14. Haizexka Nuñez
15. Irati Barrenetxea (**irabazlea:** «Lorerik politena, Maritxu»)

#### Hirugarren taldea:

1. M. Alazne Iturain
2. Anartz Ormaza
3. Naiara Ugalde
4. Lide Madariaga
5. Esti Markaida
6. Ziortza Garai
7. Ainara Madariaga (**irabazlea:** «Itzala»)

#### Laugarren taldea: Saria bion artean erdibanandu dogu.

1. M. Bego Iturain («Munduko pertsonarik garrantzitsuenak»)
2. Irune Iturain («Lehen elkar aurkitzea»)



IDATZIZ ETA IRAKURRIZ  
GEUREA DAN EUSKERRA  
AURRERA EROATEN!!!

# Ardaoaren ganekoa ikastaroa




Abenduaren 19tik urtarrilaren 9ra arte, bost egunetan zehar, izan genduan Kultur Etxean dalako ikastaro hori. Ikastaro horretan ardaoagaz zerikusia daben eta interes handiko hainbat gauza ikasteko aukera ederra izan eben harako izena emon eben guztiek. Esate baterako: ardao eta txakolinaren ganeko jakingarriak, ardao baltza eta gorriaren arteko ezbardintasunak, ardao moeten arteko berezitasunak, eta abar. Ikastaroa ordaindutekoa 4.000 pta-koa baino ez zan izan.



## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 98ko Hauteskundeak Bakion

Igazko urriaren 25ean izan ziran EAEko Legebiltzarrerako seigarren hauteskundeak. Bakiori jagokonez, 1349 biztanlek euki eben euren hautua egiteko aukerea, hau da, arteragokoetan (1994) baino 267 hautesle gehiago egon ziran. Abstentzinoa, barriz, lehengoetan baino txikerragoa izan zan, bai kopuruan, bai ehunekotan. Abstentzinoa, oraingoetan, %16,5koa izan zan, arteragokoetan, ostera, %24koa.

Amen, bada, Bakion alderdi politikook eurok banan-banan lortutako emoitzak:



	1998	1994
Hautesleak	1.349	1.082
Abstentzinoa	223	259
Zuri-hutsak	29	22
EAJ	656	509
EH (HB)	224	146
EA	116	89
PP	57	27
IU	27	12
PSOE	13	18
UA	2	0
Besteek	2	0



## LAU MUSIKA EMONALDI

Lau musika emonaldi eratu dauz Bakioko Abesbatzak. Emonaldiok VERDIk sortutako lau operetako agots eta koruetan dabe gaia. Emonaldiotatik bi lotuten dira oraindikararren, eta Kultur Etxean arratsaldeko 5,30etan hurrengo egunetan izango dira.


**-IL TROVATORE,**  
urtarrilaren 16an  
**-LA TRAVIATA,**  
zezeilaren 13an

Igaz izan diran beste emonaldi biak honeexek izan dira: **NABUCCO** (abenduaren 5ean) eta **RIGOLETTO** (abenduaren 19an).

*Berton zure iragarkia argitaratu  
abal izango dozu.*

# ERREKA EGUNA BAKION

Urriaren 16an, Erreka Eguna zala-eta, ibili ziran Urkitza eskolako umeak, ibili, ONDARRE edo AKAGA errekearen zatitxu bat garbituten. Bakioko Udalaren laguntzaz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz eratu zan ospakizun-jai antzeko egun hori. Errekearen bazterretan egozan nahi errekeak berak eroazan sastarrak



eta hondakinak batu be batu ebezan umeok, eskolako irakasleak eta udal beharginak lagun ebezala. Ekintza horren helburua geure inguruko errekek jagoten irakastea izango litzake. Umeren batzuen kontua ez eze, danon ardurea be beharko leuke izan, baina.

**Mungiarrok esan:**

**Hor datoz Bakiokoak zapata ganean.**

**Bakiotarrok erantzun:**

**Mungidxe lapur guztidxen tokidxe.**

## NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARI BURUZKO IKASTAROA

Udalaren ekimenari esker, zemendiaren 18an urtarrileko 27ra arte ipini zan abian Nekazaritza Bizibarritzeko Prestakuntza Ikastaroa. Honen helburua bikoitza izan da: batetik, gaur egun nekazaritzan dagozan ekoizbideak zeintzuk diran ezagutarazotea, eta bestetik, baliabide egokiak zehaztea, ingurugiroa errespetatuko dabezan industria, nekazaritza zein turismo arloko jarduerak bultzatzeko. Orain arte, 21 pertsonak hartu dabe parte, baina

ikastaroa zabalik dago gura daben guztiek parte hartu daien.

16 orduko ikastaroa 8 asteko beste hainbeste egunetan eratu da. Ikastaroaren gaiak nekazaritza eta abeltzaintzeagaz lotu-lotuta dagoz, besteak beste:

-Nekazaritza ekologikoa.

-Abeltzaintzako ustiapen era barriak.

-Nekazaritzako elikagaien

merkaturatzea.

-Nekazaritza eta abeltzaintzearen plan estrategikoa.

-Arlo horreetako negozioen kudeatzea.

-Lehenengo Arloaren jardunbide osogarriak.

Ikastaroa biribilduteko bisitaldi interesgarri batzuk eratu dira.

# S I F A C



Bakioko liburutegian liburu eta aldizkariak gan, SIFAC zerbitzua egon badago. SIFAC programea datu batuketeta da. Datu batuketa honek lan eskaintzak batzen dauz. Informazioa lau ataletan bananduta dago:

**Laguntzak:** Erakundeek emondako dirulaguntzak, bekak, etab.

**Enplegu publikoa:** Oposaketak, etab.

**Enplegu pribatua:** Enpresa pribatuek ataratako lan eskaintzak.

**Ikastaroak:** Erakunde publikoek eta pribatuek antolatutako ikastaroak. Ikastaro honek edozein gai jorratzen dabe.

Horretaz gan, atal berezi bat badago, *informazio orokorra* deritxona. Hor aurkituko dozuez aholku erabilgarriak. Esate baterako: zelan egiten dan Curriculum Vitae, zelan prestatu alkarrizketak, lana eskaintzen daben enpresen zerrendea, etab.


*Hau zeure iragarkirako lekua izango da.*

# EUSKEREAREN JAIA-98

Ehunurte askotan egin eta bizi da Bakioko euskerea gure artean. Aldikada luze-luze horretako bakiotarren bizikerak, historia eta hizkuntza kalitatea dagoz beraren barruan, Bakioko nortasuna, azken baten. Egundoko altxorra. Omenduengan herriko euskerea bera omendu gura izan genduan. Azken mohikanoak izango ete dira? Gazteen eskuetan dagoz erantzuna eta haren etorkizuna.




Dagozan guztidexk badira, diran guztidexk ez dagoz.



Aitite Ziriako lez,  
bilobie be sokako aurrekuen maisu.  
Ardantzakoa Ardantzako, gero!

Honeexek baietz Arabiatik etorri izan, euskeraz baina!



Banakako aurrekuen Anderrek itzel!



Hankak arin arinek, buruek arinago, danizan hobeto dakidxe artajorran baino!



Bertsolaridkek. Hoba, ez! Jan ta jan...

Euskeraz jo ta ke. Bai, gero?



# Euskeraren datuen gazi-gozaok

Daborduko SIADEKO enpresak jarduera ekonomikoetan zein herriko alkarteetan egindako azterketa sozio-linguistikoaren emoitzak daukaguz. Bertan oso datu adierazgarriak agertzen dira. Esate baterako, Bakioko jarduera ekonomikoetako (tabernak, janari dendak, oilotegiak...) arduradun eta enplegatuen %67,7 euskaldunak izanda be, establezimenduetan gauzatzen diran euskerazko hartuemonak honakoak izan dira: bezero eta enplegutuen artean hartuemonen %29 euskeraz egin dira, baina bezeroen artean %8 baino ez (kontuan hartu behar da, gizarte bizitza, gehienbat, Bakioko taberna zein establezimenduetan egiten dana). Era berean, egitasmo honeri ekin baino lehen euskeraren agerpen idatzia oso urria izan da ia elementu guztietan (idazkiak, menuak, fakturak eta abar). Beraz, ikusi daiteken lez, euskeraren erabilpena nahiko asao lotzen izan da hizkuntz normal-kuntzatik ahozko zein idatzizko hartuemoneri jagokenez. Ganera, merkatariei zeintzuk diran euskera erabilteko trabarik nagusienak itaunduta, %62,7k erantzun deusku ez dagoala ezelako eragozpenik. Edozein modutan be, orain arte egoera larona izan ez bada be, egitasmo honeri esker lortu dogu Bakioko jatetxeetako menuen %80 elebrietan ipintea, bai eta idazkiak eta iragarpen kartel askotan be (%65) euskeraren presentzia gehitzea.

Bakioko alkarteen kasuan, bazkideen euskera jakite maila %80,2koa da, hau da, Bakioko herritarren batezbestekoa baino askoz altuagoa (ia 13 puntu). Edozelan be, sano



Bakioko ume guzti-guztiak euskaldunak izanda, horreei, gitxienez, zuzendutako ekintza guztiak euskeraz bideratu beharko litzatekez.

esanguratsua izan da gaztelaniak lehenetsun osoa daukan elementua «partaideen arteko hartuemonena» izatea. Horrek, SIADECOREn esanetan, «*argi adierazoten dau eguneroko ahozko hizkuntza praktika oso asao lotzen dala euskeraren normalizaziotik*». Ganera, datuek erakusten dabe 40 urtetik gorakoen artean euskera gehiago erabilten dala, adin horretatik beherakoen artean baino.

Datu arduragarri honeek kontuan hartuta, argi dago euskerari esparru barriak eskuratu behar jakozana. Horretarako, behar-beharrezkoa izango da alkarteen eskuhartzea. Izan be, Bakioko alkarteotan, gitxi gorabehera, 700 pertsonak parte hartzen dabela gogoan izanik, alkarteetan hartuemon formalak (begirale eta partaideen artekoak, gehienbat) euskeraz finkatzearen aldeko politika bultzatuz gero, itzelezko aurre-

rapausua emongo geunke euskera prestigioatu eta ahozko erabilera gehitzeko orduan. Dinamika hori sustatu ezean, hurrengo mendean euskera ez da izango Bakioko nortasunari lotutako elementu funtzionala, gazte eta ume guztiek jakin arren, ahozko erabilera hutsaren hurrengo izan leitekela.

Guztiagaz be, Bakiok aukera ezin hobeak eskaintzen dauz euskeraren ahozko erabilpena handitzeko: herritarren %66,9, merkataritzan diharduen pertsonen %67,7 eta alkarteetako partaideen %80 euskaldunak diralako. Datuek erakusten daben lez, abiapuntua beren-beregia da gizarte bizitzan euskeraren erabilera bultzatzeko. Sustatze politika hori honako puntuotan oinarritu beharko litzateke: alkarteak eragileak izatea euren barruko hartuemonak euskeraz finkatukeran, merkatariek informazio idatzia euskeraz be eskaintzea, herritarrei, orokorrean, eta ume zein gazteei, bereziki, zuzendutako kultur ekintzen kopurua handitu eta euskeraz gauzatzea eta, azkenik, bertoko euskera prestigioatzea. Horrenbestez, euskeraren egoeraren inguruko datuak plazaratu ostean, bakiotarren esku egongo da euskerak hainbat esparrutan aurrerapausoak emoteko ahaleginak egitea. Halan da ze, hau guztia hemendik gitxira aurkeztuko jake era ofizialean herriko alkarteei, euren autoinplikazio eta borondatean oinarrituz, euskeraren aldeko sustatze lana euren barruko funtzionamenduan bultzatu daien.

*Joseba Terreros  
Bakioko Euskera Teknikaria*

**«Surik ez dagoan lekuan, kerik ez.»**



# 1.-NON DAGO BASERRI HAU?

## 2.-ZELAN DAUKA IZENA?



Erantzunak badakizuz, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea martiaren 26an amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzunak igarriko dabezanen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

### Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Arteragokoaren erantzun zuzena:

«**Santa Katalinako zubia**»

Irabazlea: **Mari Asun Garai**

Amen dozuez **Mari Asun Garai** eta bere laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.



# TXOBERNE

Benta Alde, 148  
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatuteko  
leku aproposa  
Bakioko txakolina, sagardoa  
eta jateko giro ezin hobiau

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81



## ALDERDI POLITIKOEK BE «BAI EUSKARARI» ALDARRIKATU DABE

2- Euskera ofiziala ez dan tokietan estatus hori lortzeko jokabideak hartzea.

3- Instituzino guztietan euskeraren aldeko neurriak sail guztietara zabaltzea. Era berean, Euskal Herri osoko instituzino eta erakundeen arteko lankidetzaz bultzatzea euskera sendotu eta berreskuratzeko.

4- Behar diran bitarteko administratibo, juridiko eta, beren beregi, ekonomikoak ezartzea. Era berean, dirulaguntzinoen kopuruak handitzea.

5- Euskal Herriko hiru erkideko juridikoetan euskera indartzeko onartutako plangintzak bultzatzea.

Ganera, Gizarte Kontseiluak eragile sozialakaz egingo dauan Plan Estrategikoa be bultzatzea.

6- Bakotzak bere alderdi barruko eta kanpoko hizkuntz erabilpena normalizatzeko prozesu etenbakoa abian ipintea.

7- Azkenik, kopromiso honeen jarraipena egiteko, Batzorde Berezia eratzea alderdi bakoitzeko eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko ordezkarietz osotua.

Ikusi leiteken lez, euskerari be heldu jako alkarlanean oinarrituta aurrera egiteko sasoia. Itxaron daigun

Txirritxola hau argitaratzen danerako, «Bai Euskarari» kanpainaren barruan antolatutako azken ekitaldia (abenduarien 26an Euskal Herriko futbol zelaietan egindako jai erraldoiak) igaroa izango da. Halan eta guztiz be, ekimen honen barruan bada guztiz pozgarria izandako barria: Euskal Herriko bederatzi alderdik *Euskararen normalizaziorako konpromiso politikoa* izenburuko agiria aurkeztu eta izenpetu izana. Hau da, AB, Batzarre, CDN, EA, EAJ, HB, EUE-ICV, IU-EB eta Zutik-eko arduradunak mahai baten inguruan batu ziran euskerari bai esateko.

Horrenbestez, alderdiok hartutako konpromisoak, era laburrean azaldua, honek dira:

1- Euskeraren normalkuntza prozesuak behar dauazan neurri politiko eta instituzinozkoak hartzeko konpromisoa.



Bakioko herritarrek zein alkarte eta jarduera ekonomikoetako ardura-dunak honetaz konturatu eta euren be euskera bultzatzeko politika abian ipintea.

*Joseba Terreros*

*Bakioko Euskera Teknikaria*



# Birigarroa



**OHARRA:** Arteragoko TXIRRITXOLako arlo honetan agertu zan Turismo Bulegoak erdera hutsean egindako hormirudia, eta beragaz batera gure salakuntzea eta eskabidea be bai. Turismo Bulegokoek, barriz, hormirudiok hizkuntza bietan, **batzuk erderaz eta beste batzuk euskeraz**, egin ebezala esan deuskue. Guk eurek guri esandakoa hartu, onartu eta danon agirian itzi egiten dogu hemengo honetan.

Badira, oraindikarren, gure artean joandako sasoi ilunen hondakinen bat edo batzuk. Horreetariko bat argazkikoa dogu. Landabarrenan behera etorri eta Bakion sartukeran, blaust!, ezkerretara, hango etxeko hormeari deusola, ikusi leiteke idazkun hori Tabernalde inguruan: «BAQUIO». Herriko izenaren grafia frankistea hor dago, agirian, oraindikarren zutunik, joanaren mamua izango balitz lez. Orduko sasoiak ahaztu ez daiguzan, aurki. Gure eritxian, idazkun hori museoren bateko traste tokian edo ganbaran sartuteko sasoi heldu da, han sitsek jan daien. Gure herria Hizkuntza Normalkuntzearen bidean sendo sartu danean, bake bideak inoizko itxaropenik handienak loratu eragin dauazanean, ez dauka bururik ez buztanik frankismoaren ezaugarri anakroniko horri eusten jarraituteak. **BAKIO** imini behar dau bertan, eta ez besterik. Horregaitik, jagokonari -Bizkaiko Foru Aldundiari zein Bakioko Udalari- eskatuten deusogu, anakronismo hori ahalik arinen konpondu eta arteztu daijala. Gure Herriak egoera normalduan bizitea merezi dau eta.

## AZKEN ORDUKO ALBISTEA

### Euskal Presoen aldeko ekintza bateratua


Bakioko Udalaren Osoko Bartzarrak, **ago batez onartuta**, abenduaren 31ko eguerdiko letan, udaletxearen aurrean, Euskal Presoen eskubideen aldeko batze isilera deitu eban. Udalak hartutako erabagian honoko honeek eskatu ebazan:

1.- Indarrean dagoan Legedia beteteko, hau da, Euskal Preso guzti-guztiak Euskal Herriko espetxeetara ekarteko.

2.- Zigorraren hiru laurdenak bete dabezan Euskal Presoak askatasun baldintzatuan izteko, Legeak halan dino eta.

3.- Gaixotasun osatuezinak jota dagozan Euskal Presoak behingo-behingoan jare egiteko, Legediaren 92. artikulua araberan.

SENIDEAK alkarteak aurkeztutako honen antzeko mozinoa Hego Euskal Herriko 154 udalek, gitxienez, onartu eban, Gabonetako kanpainearen barruan. Bakioko udaletxearen aurrean ehun eta berrogeita hamar bat lagun inguru batu ziran Udalaren deiagaz bat etorteko. **Presoak etxera!!**



# ZAHARRAK BARRI

Arteragoko argazkietan haretza aldeko Bakio zaharra erakutsi geuntsuen. Eta ez da ha aldatu dan bakarra. Argazki honetan ikusi daikezuenez, barrualdeko Bakio be, hainbat aldatu jaku.

Argazki zaharrean, hor daukagu Estankoaldetik gorantzako bidea. Eskoian, lehen jantokia zana eta gaur egun be lotzen dan etxe pare bat ikusi geinkez. Ezkerraldean, asago, Villa Concha edo Ametsa dago.

Gaur egun, ostera, herrian oso ezaguna dogun Erosle eta antxinako alboko hiru etxeak baino ez dira lotzen. Beste guztiek, batez be ezkerraldekoek, urte gitxi batzuk baino ez daukez. Izan be, Villa Concha edo Ametsa nekez ikusten da Ibarreta etxeen atzean.

Halan ta guztiz be, ez dira agiri haretza aldean dagozan lango etxetzarrak, Jainkoari esker.

Anartz ORMAZA



«Otsoak, otsokumerik ez jok jaten.»

# ITXAS-ALDEkoakaz berbetan

Oraingo honetan, ITXAS-ALDE dantza taldeko arduradunak diran Xabier Goitia eta Birgiñe Bilbaori egin deuseguz itaun batzuk, eta honeexek izan dira euren erantzunak.

**TX:** Zenbat urte daukaz ITXAS-ALDEk eta zelan sortu zan?

**IA:** Ba, urteak, hogeitabost eta herriko gazte talde batek bultzatuta sortu zan. Beste batzuen artean, Kepa Uriarte, Enrike Zabala, Felix Lauzirika, Floren Zabala, Ana Mari Arrugaeta izan ziran eurretari batzuk, eta guzti hori Bakioko Parrokiaren laguntzaz.

**TX:** Zenbat inguru zaree taldean eta zer adinetakoak?

**IA:** Gaur egun, ehun ta hogeita hamabost dantzari gara eta hiru urtetik hogeita zortzira arteko adinekoak.

**TX:** Atzerritik hainbat ibili zaree. Gogoko dira gure dantzak kanpoko herrialdeetan?

**IA:** Bai. Orokorrean, jendeari gehien gustatzen jakozan dantzak euskaldunak, errusiarrak eta hegoamerikarrak (Argentina, Costa Rica, esate baterako) izaten dira eta uste dogu indarra, bizitasuna eta erabilten diran erremintakaitik izango dala.

**TX:** Euskal Herri osoko dantzak egiten dozue. Zenbat inguru?

**IA:** Gure errepertorioan zazpi lurraldeetako ehun ta hogeita inguru daukaguz.



**TX:** Itxas-Alde hasi zanik eta hona zer aldaketa dago taldean?

**IA:** Hasikera baten, Euskal Kultura zabaltzea eban helburu, hau da, antzerki, kantu, dantza arloa eta abar. Orain, esparru hori beteta dagoala eta, euskal dantzak ikasi eta munduan erakustea da gure helburu nagusia.

**TX:** Ze ekitaldi nagusi dozuez presatuta urte barrirako?

**IA:** Aurtengo ekintza nagusia, duda barik, Argentinarako bidaia izango da, zezeilaren hogeitik martiaren hirura artekoa, eta gero, ba, urteroko Nazioarteko Folklore Jaialdia eta Andra Mari eguneko dantza erakusketa nagusia.

**TX:** Eta amaitzeko, zelan ikusten dozue taldearen etorkizuna? Badator gaztedirik atzetik?

**IA:** Taldean lan arlo asko dago: jantziak, jaialdien antolakuntza, diru kontua, irakaskuntza, eta abar. Oraingoz, irakasten hainbat gazte dagoz eta apurka-apurka joango dira beste arloetan be sartzen. Esan leiteke ITXAS-ALDEren etorkizuna ziurtatuta dagoala.

**TX:** Ba, beste barik, hurrengo batera arte eta suerte ona izan daizuela aurrerantzeko ekintzetan.

Unai BEITIA

## Flashak!!

### ALAITASUNA Pilota Taldea

Urtero torneoakaz leporaino dagoz Alaitasuna Pilota Taldekook, sasoi honetan hurrengo honeexek jokatuten dabilz: Umetxuen eta umeen «Eskola Kirola» -eskupeleta eta paletea- (Aldundiak eratuta), hurrengorik hurrengora; nagusien «Corte Inglés Saria» (Pelota Federazioak eratuta), «Bakioko Udala» -pala laburra- eta «Alaitasuna Pilota Taldea Saria» -eskupeletea- (biak Alaitasuna Pelota Taldeak eratuta).



### BAKIOKO ABESBATZAREN BARRI

Igazko abenduaren 19an ETBko SUSTRAIAK saiorako minutu bete abesti grabatu genduan San Pelaio baseleizan. Gabonetako egitarauaren barruan, abenduaren 26an beheko eleizan «Gabonetako Kantak» kontzertua eta 27an, goiko eleizan, Meza Nagusia abestu genduzan. Ostean, Quinta Torren zaharrei Gabon abestiak abestu geuntsezan. Beste aldetik, Begoñako Abesbatzen Hamabostaldian zezeilaren 4an abestuko dogu.



### BAKIOKO MUSIKA ESKOLEA

Pilota, jantza, abesbatza ez ezik, musika kalseak ere baditugu gure herrian, Kultur Etxean, aspalditik izan ere. Berrogeita hamazortzi ume dira guztiz eta hurrengo musika tresnak ikasteko aukera dago: txistua, kitarra, pianoa, soinu handia eta trikitia, horrez gain solfeo ere. Hau guztia guraso eta irakasleei esker. Ekarri umeak herriko Musika Eskolara!

# BAKIOKO EUSKEREAA-IV

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

**Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,**

■ zelan idatzi behar dan: “egin dodaz”

■ Bakion zelan esaten dan: “(eín dxotés)”

Aditza izango da oraingo honetan ukutuko dogun gaia. Zehatzago esanda, aditz laguntzaileari begiratuko deutsogu. Aditz laguntzaileak, bada, aditz nagusiari lagunduten deutso, esaterako:

- Jonek hartu eban hartutekoa atzo. (*Jonék artú dxen/seuén* ártutekoa atzó.)

aditz nagusia: **hartu** (*artú*)

aditz laguntzailea: **eban** (*dxen/seuén*)

Aditz laguntzailea jokatu egiten da, nagusia, ostera, ez.

Aditz laguntzaile bi daukaguz euskeraz: **IZAN** aditz nagusi intransitiboakaz (joan, etorri,...) jokatuten dana eta **UKAN** aditz transitiboakaz (hartu, eroan,...) jokatuten dana.

**IZAN** (NOR-orain/gero)

<b>Ni/Neu</b>	( <i>ni/néu</i> )	<b>naz</b>	( <i>nas</i> )	<b>ez naz</b>	( <i>enás</i> )
<b>Hi/Heu</b>	( <i>i/eu</i> )	<b>haz</b>	( <i>as</i> )	<b>ez haz</b>	( <i>eás/esás</i> )
<b>Zu/Zeu</b>	( <i>su/séu</i> )	<b>zara</b>	( <i>sará</i> )	<b>ez zara</b>	( <i>esará</i> )
<b>Ha/bera</b>	( <i>a/berá</i> )	<b>da</b>	( <i>da/de</i> )	<b>ez da</b>	( <i>está</i> )
<b>Gu/Geu</b>	( <i>gu/géu</i> )	<b>gara</b>	( <i>gará</i> )	<b>ez gara</b>	( <i>eskará/egará</i> )
<b>Zuek/Zeuek</b>	( <i>súek/séuek</i> )	<b>zaree</b>	( <i>saríe/saré</i> )	<b>ez zaree</b>	( <i>esaríe/esaré</i> )
<b>Hareek/Eurak</b>	( <i>árek/áiek/éurek</i> )	<b>dira</b>	( <i>diré/dirés</i> ) <sup>(1)</sup>	<b>ez dira</b>	( <i>estiré/estirés</i> ) <sup>(1)</sup>

(1) Edo honeek be bai: (*dié/diés*) - (*estíe/estíés*)

**OHARRA:** **egin** (*éin, in*), **jakin** (*dxakín*), **imini** (*imíni*), **hil** (*il*), **ibili** (*ibilli*)...aditzokaz eta **ezin** (*esín*), **zein** (*séin*)...berbakaz hurrengo honeexek entzuten dira: **da** (*dxá, dxé*), esaterako:

- Hori **imini da**, ez besterik. (*Orí imín dxé, es bésterik*)

- Lehen **egin dala** esan dozu, ez da? (*Len ín dxalá esán'su, está?*)

#### IZAN (NOR-lehen)

Ni/Neu	nintzan	(nitzén)	ez nintzan	(enitzén)
Hi/heu	hintzan	(itzén)	ez hintzan	(eitzen/iitzén)
Zu/Zeue	zintzazan/zinan	(sintzen/siñén)	ez zintzazan/zinan	(esintzen/esiñén)
Ha/Bera	zan	(san/sen)	ez zan	(esán)
Gu/Geu	gintzazan/ginan	(gintzesán/gintzen/giñén)	ez gintzazan/ginan	(eskintzesán/eskintzen/eskiñén)
Zuek/Zeuek	zintzazen/zinen	(sintzen/siñén)	ez zintzazen/zinen	(esintzen/esiñén)
Hareek/Eurak	ziran	(sirén)	ez ziran	(esirén)

**Oharra:** Entzun, hurrengo honeexek be entzuten dira:

**ni nintzan** (*nitzén/neitzén - enitzén/eneitzén*)

**zu zintzazan** (*sintzen/seiñén - esintzen/eseiñén*)

**gu gintzazan** (*gintzen/geiñén - eskintzen/eskeiñén/egiñén*)

**zuek zintzazen** (*seiñén - eseiñén*)

*Iniaki MARTIARTU*



**Bakio,  
aparta hakio,  
ahal bahakio;  
lapa-salda  
dario.**

# Xiberoko Maskarada-99

Aurtongo Xiberoko Maskaradea Idauze-Mendi herrietako gazteek eratu dabe. Hor ibiliko dira, bada, gazteok urtarrilaren 17tik hasita eta apirilaren 18ra arte, domekaro, Xiberoan zehar Maskaradea dantzatu eta antzezten. Egitaraua hauxe dozue:



## urtarrilaren

17an Idauzen  
24an Garindaiñen  
31an Pagolan



## zezeilaren

7an Altzürükün  
14an Altzain  
21an Muskildin  
28an Arrokiagan



## martiaren

7an Mendikotan  
14an Ligin  
20an Maulen  
28an Urdiñarben



## apirilaren

4an Barkoxen  
11an Larrañen  
18an Mendin



## Gura izan eta ezin, egin eta hondatu

Izana eta izenaren ganetik  
gizona / emakumea...gizakia.  
Eta ez dago amarik,  
eta ez dago habiarik.  
Ez dago non negar egiterik  
...eta...eta ez dago...zerik!

Mendeen mendeetan,  
iluntasunaren gauean,  
bihotzaren beroetan...  
eta nik...eta nik...  
nik txoria neban maite!

Norberarenak egin dauanean...  
ibarren, latsen bakea, ostea.  
Noraezean egonkeran,  
amak umea hilda izten dauanean...  
Ez dago non negar egiterik  
...eta...eta ez dago...zerik!

Begiak estu-estu,  
agoa lehor, mihina astun,  
auzokoaren bakean...  
eta nik...eta nik...  
nik txoria neban maite!

Ametsak ustel, amestxarrak egi,  
...ilun-ilun dager.

Zulo baltza, txori dardaratia,  
esku zimela.

Ez dago non negar egiterik  
...eta...eta ez dago...zerik!

Ezkontasunak gura gauz beraganatu,  
okerkeriaren indarrez,  
txarkeriaren gozotasunez...  
eta nik...eta nik...  
txoria benetan nebana maite!

Ez neban egin gura, baina...  
Ostera,...egin, zertu,  
hustu egin neban,...nik neuk!

Zugatzaren gereizpean ispilua dirudit.  
Ez egoan beste biderik, ez, ez, ez  
egoan.

...nire kolkoan!

Arnasea estuka, bihotza taupadaka,  
ikusmena lausotuta...geroaren galbidea.

Eta nik...eta nik...bai, nik txoria,  
txoria maite egin neban!

Baina, txoriak ez eustan sinistu...

Lotu egin neban, neure nahikeriaz...

Lohitu, hondatu...

...akitu!

Bizitzearen leihotik  
urtenazo egin neutsan,

**NIK NEUK!**

*Iniaki MARTIARTU*

**Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK  
lekutxu hau eskainiko deutsu.**



## KEPA DEUNAREN OILASKOA (euskal ipuina)

Behinola baten, beste asko lez, Kepa Deunak Jesukristori bere etxera, arren, bazkaritan etorteko eskatu eutson. Eta Jesukristok baietz erantzun eutson, pozik joango zala erantzun be.

Kepa Deunak orduan, pozarren, maisu maiteari mahaira atarateko oilasko gizen, samur-samur bat hil eta laban erre eban.

Otordua heldu zanean, Jesukristo, goiz osoan berbaldiak egiten lanpetuta, ez zan inondik inora agiri.

Gosetu zan Kepa eta sabelean urdaila glu!, glu! egiten hasi jakon. Laban erretako oilaskoaren usain gozoa bere sudurzulo luzeetan barrura sartu jakonean, sabelzorria hil ezinik, dart! aitzoaz oilasko koipetsu, errearen izter bat ebagi eta berehalako baten iruntsi eban. Gero, kontuz kontuz, Jesukristok ez igarteko, oilasko hankabakarra erreteiluan ipini eban, izterbako alde beherantza begira, jakina.

Handik lasterrera, Jesukristo etorri eta bere ikasleekaz mahaira jazarri zan. Bazkari aurreko otoitza esan ostean, aitzoa eta lauhortza eskuetan, Jesukristo mahailagunei oilaskoa bananduten hasi zan.

Ene! Ene! Oilasko izterbakarra non agertu zan!! Eta holan zirautson Kepari:

- Ene, Kepa, oilasko hau hankabakarra dogu. Besteak, orduan:

- Bai, Jauna, oilaskoak hankabakarrak dira.

- Hankabakarrak?, Jesukristok.

- Bai, Jauna, hankabakarrak. Ez ete da Berori, beharbada gogoratuten, munduaren hasikeran, paradisuaren abereak eta hegaztiak egin ebazanean, oilaskoak ankabakarrak egin ebazala?, erantzun eutson Kepak.

- Ez nekian holangorik, Kepa, zirautson Jesukristok.

- Egi-egia da, Jauna. Halantxe da. Etorri beite, osterantzean, gaur ilundian oilotokira eta Berorren begi-begiez ikusiko dau, inotson Kepak.

Oilasko izterbakarra jan eben, bada, Nazareteko mama gozoa edan eta hitzaspertua egin ostean, bazkaria amaitu zan.

Arrastian, Jesukristo, barriren-barri be, bere herritarrei zerurako bidea erakustera joan zan. Kepa, arrantzalea zan ezkerro, itsasora sareak jaurtitera joan zan.

Ilunabarrean, Jesukristo ta Kepa oilotokira joan ziran alkarregaz. Oilaskoak otan lotan egozan, dan-danak hanka baten ganean lotan egon be.

- Ikusten dau, Jauna, ikusten? Oilasko guztiak hankabakarrak dira, esan eutson Kepak.

Orduan, Jesukristok txalo bat jo eta oilaskoak, ikaratuta, kikirrikika hasi ziran. Eta esan eutson:

- Horra hor, Kepa, hor dozuz, zure hankabakarrak hankabiko eginak.

Eta Kepak akiakulaka:

- Jauna, gaur eguerdian jan dogun oilaskoari be, Berorrek txalotxu bat jo izan baleutso, hankabiko laster egingo zitzakean.

- Ai, Kepa, Kepanton. Esakera zaharra da: guzturia harrapatuten da errezagoo, hankabakarra baino. Eta, badakizu, esakera zaharrak guzurrik ez, erantzun eutson Jesukristok.

Honetan, oilarrak kukurruku jo eta ipuin polit hau amaitu da.

Hori holan izan bazan,  
sartu daitela kalabazan.  
Eta urten daiala  
Lapikolurreko bidean.

Iniaki MARTIARTU

### Berbalapikoa

**arren**= mesedez, otoi.

**pozarren**= pozaren pozez, poz-pozik.

**gizen**= lodi.

**samur**= bigun, guri.

**otordu**= bazkalordu, jatordu.

**lanpetuta (egon)**= beharrez beterik (egon).

**sabelzorri**= gose handi, gosegorri.

**erreteilu**= plater.

**lauhortz**= norberak jateko erabilten dauan sarda txikitxu baten antzeko tresnea.

**irautsi**= esan.

**Berori**= agintari, abade eta nagusiei BERORIKAN egiten jake, aditza beti hirugarren pertsonan erabiliz. (Berori DA= zu zara)

**hegazi**= hegan egiten dauan edozein abere.

**mama**= ardao.

**hitzaspertu**= barriketaldi luzea.

**barriren-barri**= barriro, ostera be.

**ilunabarrean**= ilundian, ilunkeran.


**ota**= oilotokietan egoten dan taket luzea, oiloek ganean lo egin daien.

**kikirriki**= oilaskoek egiten daben zaratea.

**akiakula**= atxakia, estakuru.


**kukurruku**= oilarrak egiten dauan zaratea.

## BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA



**OLAIZOLA, Jose Luis: Hiriko ehiztaria**

Egoera larrian bizi dira Lebrijanotarrak, etxepe baten: aita lan barik, ama etxea gobernatu ezinik, izeko Antonia osasunez pattal, Xilberio eta Roberta seme-alabak... Egun baten, uriko ehiztari bihurtuko da aita, parkean. Errez eta eurrez harrapatzen dabez usoak. Baina...



**HUGO, Victor: Parisko Andre Maria**

Walt Disney multinazionalak egindako bertsinoo guztiok ezagutzen dogu: gargolak, Quasimodo, Esmeralda... bideoak saltzeko ipuin ederra, baina Victor Hugok egindako lana askoz aberatsagoa da. Parisko Notre Dameko katedralaren bazter ilun Baten «ANAGKH» eskuz grabatutako berba misteriotso honen atzean dagoan istorio zoragarria dogu hau. Ezinezko maitasunak erdi aroko giroan sortutako istorioa baino gehiago da. Katedrala unibertsoa zan Quasimodorentzat.



**GARRIDO DE RODRIGUEZ, Neli: Mamu bat hirian**

Gizakiok Lurra hondatzen gabizala erakustea da liburu honen helburua. Ipuinaren asmoa da umeak nagusienganako eragina erakustea.

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdu gurera!

# DATOZANAK

Datozan hilabeteotan euskalzaleentzako hurrengo hitzorduok izango doguz Euskal Herrian zehar:

**Xiberoko Maskarada**, urtarrilaren 17tik apirilaren 18ra domekaro, Xiberoan zehar.

**Danborrada**, urtarrilaren 20an, Donostian.

**Bertsolari Eguna**, urtarrilaren 30ean, Donostian.

**Inauteriak**, urtarrilaren 31an, Ituren eta Zubietan.

**San Blas Eguneko Azokea**, zezeilaren 3an, Abadiñon.

**Basatoste**, zezeilaren 7an, Bizkaian zehar.

**Aratosteak**, zezeilaren 11tik 16ra, Euskal Herrian zehar.

**Aratosteak**, zezeilaren 14an, Mundakan.

**Korrika 11**, martiaren 11tik 28ra, Iruñetik Donostiara.

**San Jose Eguna**, martiaren 19an, Bakion.

**Aberri Eguna**, apirilaren 4an, hainbat lekutan.


**Luzaideko Ihauteria**, apirilaren 4an, Luzaiden.

**Xiru**, apirilaren 5ean, Gotainen.

**Euskal Idazleen Biltzarra**, apirilaren 5ean, Saran.

**Nafarroaren Eguna**, apirilaren 25ean, Baigorriin.

**Armentiako Erromeria**, apirilaren 27an, Gasteizen.



## BARREGAIK

### OSAGILEARENEAN

-Osagile jauna! -dinotso umeak- nire lo-arrantzek, zaratearen zarataz,  
iratzartuten nabe.

-Orduan, joan zaitetz beste gela batera.

### UMEAK AITARI


-Aita, aita!

-Zer gura dozu seme?

-Opari bat egin gura deutsut.

-Hau zoriona! Zer da, bada?

-Aste honetako ikastetxeko notak zuri ez emotea.



### ITXAROPENIK EZ

Ikastetxe Nagusiko irakasleen arteko bat gaixotu da eta bere ikasleen ordezkaria ikusten joan jako. Urtenkeran, ikaskideek itaundu deutsoe ordezkariari:


-Zer, ba ete dago itxaropenik?

-Ezta txikiena be. Bihar irakasten etorriko jaku eta.


## badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95	94 619 31 18
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
+ Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07	
Udaltzaingoa	929 435 666	94 619 31 18
sos Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia (Carlos Uriarte)	94 619 41 79	
Taxia (Bilbao Ugalde)	94 619 42 50	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 10 98/05 44	
Autobusa (Túñez-Sánchez)	94 688 31 71/03 21	


# ezetz jakin!



## 10 ezbardintasunak



Etxe honetan bost etxebizitza dagoz. Bertan Jon, Endika, Ander, Erramun eta Kepa bizi dira. Erramun, Ander eta Jonen ganean ez da inor bizi. Ander eta Endikaren alboan ez da inor bizi. Jon eta Endikaren azpian ez da inor bizi. Non bizi dira, ba, Jon, Endika, Ander, Erramun eta Kepa?



Jon, Kepa eta Iñaki, Joseba baino handiagoak dira. Iñaki, Endika eta Joseba, Jon baino txikerragoak dira. Jon eta Endikak zenbaki bikoitia dauke. Zein da bakotxaren izena?



# ATZERA BEGIRA

ARTETXE etxeok doguz argazkikook. 1915. eta 1917. urteen artean egindako argazkia ei dogu berau. Aor agertuten dira Artetxeko bost morroskook, etxaurrean, zehatz-zehatz, txakolin mahastietarako menduak eratuten. Menduok, gero, edagon egiten ebezan mama hobea eta goxoagoa batu ahal izateko, aurki. Inork ez badau hori sinistuten, Artetxeko txakolina edatea baino ez dauka.

ARTETXE baserria lau etxebizitzakoa izan arren, orduan, hareetariko hirutan baino ez ziran bizi Artetxetarrak, Zabalatarrak eta Abiotarrak. Familia bakotxa berean. Aitatu beharrekoa da be atariko haga nagusiari eusten deutson zutabe ederra. Ikusgarria!

Argazkikoak honeexek doguz, ezkerretik eskoira:

Fermin ABIO - Luis ZABALA (errentadorea) - Hipolito ARTETXE (jaubea) - Domingo ABIO - Simon ABIO (errentadorea)

(Argazkia: Enrike Zabalak itzita)